



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

IPUIN MUSIKALA BALIABIDE DIDAKTIKO GISA HAUR HEZKUNTZAN: PROPOSAMEN DIDAKTIKO BAT

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Bautista Martínez de Icaya, Marta

ZUZENDARIA: Barrena De La Rua, Nerea

2019

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan honetan Haur Hezkuntzan musika lantzeko proposamen didaktiko bat luzatzen da. Musika hezkuntzak 0-6 etapan duen garrantzia eta umeen garapenean dituen onurak azalduta. Sortutako ipuin musikala eta proposatutako hainbat jardueren bidez, musika Haur Hezkuntzako geletara hurbilduko dugu. Ipuin musikalean hiru musikagile garrantzitsuen bizitzak eta instrumentuak ezagutzeaz gain, kontzeptu musikalak landuko dira proposatutako jardueretan.

Hitz-gakoak: Ipuin musikala, Musika, Haur Hezkuntza, proposamen didaktikoa, ikaskuntza globala.

RESUMEN

En este Trabajo de Fin de Grado hemos creado una propuesta didáctica para trabajar la Educación musical en Educación Infantil. Vamos a hablar de la importancia que la música tiene en la etapa 0-6 y los beneficios que tiene en el desarrollo de los niños. Mediante la creación de un cuento musical y la propuesta de actividades vamos a acercar la música a las clases de Educación Infantil. Con el cuento musical además de conocer a tres compositores importantes y los instrumentos musicales, se van a trabajar conceptos musicales mediante las actividades propuestas.

Palabras clave: Cuento musical, Música, Educación Infantil, propuesta didáctica, aprendizaje global.

SUMMARY

For this final project, we have created a didactic proposal to examine the effects of music education on infants. We will discuss the importance of music on infants with the age range of 0-6 and the benefits to their development. Through the creation of a musical story and other activities, we will incorporate music into infant education. The musical story will introduce three important composers and musical instruments, and integrate musical concepts into our proposed activities.

Key Words: Musical story, music, infant education, didactic proposal, global learning

AURKIBIDEA:

1- Sarrera	1
2- Justifikazioa	2
3- Marko teorikoa	3
- 3.1 Gaiaren garrantzia	3
- Musika hezkuntzaren garrantzia 0-6 etapan.....	3
- 3.2 Arloaren egoera.....	6
- Ipuina baliabide gisa haur hezkuntzan	6
- Ipuin musikala haur hezkuntzan	7
4- Helburuak	10
5- Metodoa	11
6- Emaitzak - Proposamen didaktikoa	12
- Ipuina.....	12
- Instrumentuak ezagutzen	13
- Non jaio ziren gure musikagileak?.....	14
- Vivaldiren urtaroak dantzatzan	15
- Vivaldiren urtaroak	16
- Pianoa jotzen	17
- Pentagrama sortu.....	18
- Notak pentagraman jartzen	18
- 9. Sinfonia? zelako zoramena	19
- Beethoven naiz!	21
- Zer da Poztasunaren Ereserkia?.....	22
- Zein da gehien gustatzen zaizuen instrumentua?.....	23
- Ipuina kontatu guztion artean	23
- Jardueren analisisa.....	24
7- Ondorioak	27
8- Hobekuntza proposamenak	29
9- Bibliografia	32
10- Eranskinak	34
10.1- Ipuina.....	35
10.2- Jardueren materiala	55
10.3- Taulak.....	62

1- SARRERA

Gratu Amaierako Lan honetan Haur Hezkuntzan musika lantzeko ipuin musikala eta jardueren bidez proposamen didaktiko bat sortu dugu. Horretarako hainbat atal bereizi ditugu.

Hasteko, gaiarekiko garrantzia azpimarratuko dugu eta aditu batzuen iritzietan oinarrituz musika kontzeptuaren esanahia ematen saiatuko gara. Beraz, musika hezkuntzak 0-6 etapan duen garrantzia azalduko dugu eta musikak umeen garapenean dituen onurak aztertuko ditugu.

Bestalde, lan honen helburu nagusia azalduko dugu. Hau da, ipuin musikala bat eta horrekin lotuta dauden jarduerak proposatuz baliabide didaktiko bat eskainiko dugu musika Haur Hezkuntzako etapan lantzeko, 4-5 urteko umeekin. Ondoren, lana burutzeko jarraitutako urratsak modu laburrean aipatuko ditugu.

Emaitzei dagokionez, sortutako proposamen didaktikoa aipatuko dugu. Asmatutako ipuin musikala aurkeztuko dugu eta kontaketa nola jorratu behar den azalduko dugu eta diseinatutako jardueren azalpena egingo dugu bakoitza ipuinaren orrialde batean oinarrituz. Emaitzen azken atalean jardueren analisia egingo dugu curriculumeko kompetentziak, helburuak eta edukiak jardueretan nola lantzen diren azalduz.

Azkenik, ondorioei begira, gure lana bukatu eta gero zer ikasi dugun edo zer hausnartu dugun erabakitako gaiari buruz arituko gara, hots, sortutako proposamenari buruz hausnarketa egingo du. Gainera, hobekuntza proposamenei dagokionez, gure proposamen didaktikoan egin daitezkeen beste hainbat jarduera azalduko ditugu curriculumeko helburu zein edukietan oinarrituz.

Sarrerari bukaera emateko, eskerrak eman nahiko nituzke hasteko, nire Gradu Amaierako Lanaren Tutoreari, Nerea Barrena. Mila esker hilabete luze hauetan eman didazun laguntzagatik eta arretagatik. Oso onuragarria izan da niretzat azken lan hau zurekin egitea.

Bigarrenik, gradu osoan zehar izan ditudan irakasleei, bakoitza bere izaeran irakasteak eta aholkuak baliogarriak izan direlako.

Ondoren, eskerrak eman nahi diet nire klaseko kideei. Urte hauetan guztion arteko ikaskuntza irakaskuntza prozesu batean elkarrekin murgilduz gure helburua lortzeko.

Azkenik, eta garrantzitsuenetariko euskarriei, nire familiari eta batez ere, nire ahizpa eta aitonari. Egunero eman didaten indarra eta maitasunari esker, lan hau gogotsu egitea lortu dut.

2- JUSTIFIKAZIOA:

Gradu Amaierako Lan hau gai honi buruz egitea erabaki da eskoletan musikaren irakaskuntzari garrantzi gutxi ematen ohi zaiolako. Umeek geletan material egoki eskasa dute musika lantzeko, hau da, baliabide egoki gutxi ditugulako eskuragarri.

Argi dago, pertsonok musikaz inguratuta gaudela, beraz, umeek jaiotzetik oso gertu dute musika, hots, lehenengo jostailu musikaletik hasiz eta eskolan ikasten eta entzuten dituzten abestiekin jarraituz. Gainera, etxean edozein momentutan musika lantzen edo entzuten dute, bai familia-kide batek erakutsitako abesti batean, bai telebistan ikusitako marrazki bizidunetan. Beraz, esan daiteke, umeek musika kontzeptua entzuten eta ikasten dituzten abestietan laburbiltzen dela. Hori dela eta, ikasten jarraitzeko eta musikak duen etekinaz baliatzeko, musikaren ikaskuntzaren alde egingo dugu.

Bestetik, irakasleen formakuntza arlo musikalean oso garrantzitsua dela pentsatzen dugu. Beraz, 0-6 etapako profesional hauek musika irakasteko material eta baliabide anitzak erabiltzea komenigarria dela uste dugu umeen musikaltasuna sendotzeko. Hau da, klasean abestiak entzuteaz eta kantatzeaz gain, musika edukiak lantzen dituzten jardueraz baliatu.

Hortaz, musika saioak Haur Hezkuntzan funtsezkoak dira umeek musikaren esperientzia zabalagoa izateko eta haien garapenean dituen onurak aprobetxatzeko. Gainera, musikaren atzean bide edo istorio bat dago, hau da, musikagile batzuk egon dira musika egiten, "bidea" egiten, eta ezagutzekoa dela pentsatzen dugu. Baita ere, musikaren inguruan pentsamendu kritikoa izateko, garrantzitsua da umei musika estilo desberdinak erakustea eta eskaintzea, beraz, familiek eta eskolek paper garrantzitsua dute zeregin horretan.

Horregatik, gaiarekiko gabezia ikusi dugunez, gure proposamen didaktikoa ipuin musikal bat sortzea eta horrekiko hainbat jarduera proposatzea izango da. Alde batetik, ipuin musikalaren kontaketa, hainbat instrumentu musikalak agertzen dira eta bakoitzak egiten duen soinua entzungo da. Gainera, hiru musikagile famatuak daude eta bakoitzaren bizitza modu laburrean azaltzen da. Bestetik, hainbat kontzeptu musikalak azaltzen dira proposatutako jardueretan, adibidez, gorputz adierazpena, mugimendua edo hizkuntza musikal.

3- MARKO TEORIKOA

3.1- GAIAREN GARRANTZIA

- MUSIKA HEZKUNTZAREN GARRANTZIA 0-6 ETAPAN

Musika lantzeak pentsatzen dugun baino garrantzi handiagoa du, bai hezkuntza arloan, bai bizitzako beste edozein arlotan ere. Baina zer esan nahi du musika hitzak? Pascualen ustez, musika definitzea nahiko arriskutsua da musika hitzak gaur egun duen konplexutasunagatik, baina hala ere, hainbat datu aipatzen ditu. Musika hitzak, “musike” hitza greziarretik dator eta latineko hitzetik “musa”. Musikak zuen lehen esanahia gaurkoa baino zabalagoa zen, dantza, poesia eta guk musika bezala ulertzen duguna kontuan hartzen zelako. Beraren ustez, musika soinuak denboran konbinatzearen artea da. (Pascual, 2006).

Musikaren bitartez mundua ezagutzen dugu eta prozesu horretan adierazpena, sentimenduen garapena eta ideien transmisioa ematen da. (Hormigos eta Cabello, 2004). Hau da, musika adierazpen eta komunikazio bide bat da. Gainera, aipatzen dute Fubini esandako “La música presenta mil engranajes de carácter social, se inserta profundamente en la colectividad humana, recibe múltiples estímulos ambientales y crea, a su vez, nuevas relaciones entre los hombres” (Fubini, 2001, orr. 164).

Hainbat adituen ustez, adibidez, Froebel, Decroly, Montessori edo Agazzi ahizpak, musika hezkuntza oso garrantzitsua da eta ahalik eta lehen irakatsi behar da. (Pascual, 2006). Hezkuntza musikal goiztiarrak etekin izugarriak ditu adimenaren garapenean eta umeen bizitzan zehar trebetasunen eta gaitasunen garapenean funtsezkoa da, batik bat, koordinaziorako, sentsibilitaterako, talde-lanerako, ahalmenerako eta kontzentraziorako. (Akoschky, Alsina, Diaz eta Giráldez, eta Barbarroja, 2009).

Campbellen ustez, entzumenak gorputzaren garapen fisikoan eragin handia du, baita orekan eta flexibilitatean ere. Umeek jaio aurretik musika entzun behar dute eta aldi berean, beste batzuek diote hezkuntza musikala jaio aurretik hasten dela. (Campbell, 2000 in Pascual, 2006). Ildo beretik, Sargetek dio musikak gaitasun kognitiboak, psikomotorrak eta emozional sustatzen dituela eta horrek ondorioak dituela sentimenduen eta pertsonaren garapenean. (Sarget, 2003)

Bernalek, Hezkuntza Musikala definitzeko bi hitz erabiltzen ditu: egin eta parte-hartu. Aditu honek aipatzen du umei esperientzia musikalak eskaini behar zaiela umeen musikarekiko zaletasuna pizteko eta soinu anitzak ezagutzeko. (Bernal, 2005). Hortaz,

Pascualen iritiz, musikak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren helburuak eta edukiak lortzeko eta jarduerak burutzeko oinarri garrantzitsua izango da. (Pascual, 2006).

Gainera, Barbarrojak aipatzen duen moduan, hezkuntza musikalak eragin zuzena du garapen kognitiboa, sentsoriala, motorra eta korporalean. (Barbarroja, 2009). Hau da, etapa honetan ikaskuntza globala ezinbestekoa da arreta memoria, afektibitatea eta gorputz adierazpena garatzeko.

Gaitasun musikala gizakia jaio aurretik garatzen hasten da, hain zuzen ere, umea amaren sabelean dagoenean. Entzumen aparatua haurdunaldiaren 6-7 hilabeteen artean funtzionatzen hasten da, beraz, fetua entzuten hasten da hezur-bideetatik eta likido-bideetatik. Entzuketa horren bitartez memoria garatzen hasten da eta fetuak soinua eta ahotsak entzuteaz gain barneratzen ditu. Hori dela eta, ikerketek diote fetuak haurdunaldian entzundako soinuak eta ahotsak ezagutzen dituela eta horren ondorioz nahia eta gustuak garatzen direla.

Musikak, soinuak eta helduaren eta umearen arteko harremanek efektu magikoa sortzen dute. Musikak bizitzaren funtsezko "osagaia" da eta gurasoen eta Haur Hezkuntzako irakasleen papera garrantzitsua da gai honetan. Familia eta eskolak dira umei lagundu behar dietenak mundu musikalarekin konektatzen, bai jaiotzean, bai jaio aurretik. Beraz, Haur Hezkuntzako etapako arduradunak izango dira hezkuntza musikala garatuko dutenak diziplinarteko irakaskuntza ikaskuntza globalizatu baten bidez. (Akoschky, et,al. 2009).

Hori dela eta, hezkuntza musikala gizakiaren eskubide bat dela dio Pascualek eta honen irakaskuntza guztion esku egon behar dela. Irakaskuntza musikalak Haur Hezkuntzan garrantzi handia du eta oinarri zorrotzak izan behar ditu. Beraz, etapa honetako irakasleen formakuntza funtsezkoa izan behar da eta edukiak lantzeko zein helburuak lortzeko gaitasun musikalak izan behar dituzte. (Pascual 2006)

Haur hezkuntzaren helburu garrantzitsuenetariko bat umearen garapen integrala sustatzea da, motibazioan oinarrituz jolasaren eta askatasunaren bidez. Etapa honetan hasten da haurraren garapen fisikoa, afektiboa, soziala eta intelektuala eta garapen global hori lortzeko hezkuntza musikala beharrezkoa da.

Ikerketen emaitzak aintzat hartuta, esan daiteke hezkuntza musikala komenigarria dela ahalik eta azkarren hastea. Umearen sormena, adierazpena edo adimen musikala aberasteaz gain, gainerako adimenak garatzen dira, umearen garapen integrala bereganatuz. (Sarget, 2003, Lopez de la Calle, 2009).

Bernalen iritziz, garapen kognitiboa eta afektiboaren elkarrekiko harremana oso garrantzitsua da, beraz, umei esperientzia musikala eskaintzea, haien sentimenduak adierazteko eta sormena garatzeko lagungarria izan daiteke.(Bernal, 2005). Barbarrojak gehitzen du, musikak munduan dauden objektuak ezagutzeko bide bat izateaz gain, umeen ahozko hizkuntza lantzeko baliabide bat dela. (Barbarroja, 2009)

Haritik jarraitzeko, hezkuntza musikalak 0-6 etapan umeen garapenean dituen ekarpenak eta onurak aztertuko ditugu. Bi urtetik sei urtera, sentitzeko eta ikasteko etaparik garrantzitsuena da, beraz familia eta eskola umeen garapenaren arduradunak dira (Calvo eta Bernal, 2000,p 26 in Pascual, 2006).

Jaiotzetik lau hilabete arte, jaioberriak hizkuntza berbala doinu hizkuntzatik desberdintzeko gaitasuna du, hau da, soinuak emititzeko gai da baina melodiarik gabe. Soinu horiek deiak egiteko erabiliko ditu (Akoschky, et,al. 2009).

4 hilabeteekin, Pascualek dio umeak kontsonanteak erabiltzen hasten da (ba, ga), aurrerantzean jolas soinuak egiteko. Sei hilabete dituenean silaba kateatuak egiten ditu (da, ga, da, ba, ga, ba, da). Honi zizakadura deitzen zaio.Lau hilabeteekin umeak musika entzutean besoak, hankak eta burua mugitzen ditu soinuari erantzun bat emanez. 5-6 hilabeteen artean umeak hizkuntzaren eta soinuaren arteko desberdintasunak egiten ditu eta abesti batzuk ezagutu dezake (Calvo y Bernal, 2000 in Pascual, 2006).

8-12 hilabeteen artean, umea zentzuzko gauzak egiten hasten da, beraz adimenaren garapena ematen da eta memoria eta nahiak agerian jartzen ditu. Gainera, koordinazioa garatzen da eta objektuak lurrera botatzen hasten da erortzean haien soinua entzuteko. Hamabi eta hamazortzi hilabeteen artean, hitzak eta erritmoak imitatzen hasiko da eta soinuei eta musikari mugimenduaren bidez erantzungo du. (Akoschky, et,al. 2009)

18 hilabeteekin, Pascualek dio mugimenduaren garapena nabariagoa dela eta adin honekin umea gai da burua mugitzeko, oinak mugitzeko... koordinazioa eta oreka erakusten du eta horrek balioko du giharrak sendotzeko edozein mugimendua egiterakoan, adibidez, pilota bat hartzerakoan edo dorre bat eraikitzerakoan. (Pascual, 2006). 18 hilabete eta gero, umeen mugimenduak musikarekin bat joango dira eta erritmoa eta orekaren garapena nabarituko da (Akoschky, et,al. 2009)

Bi urterekin, Sargetek dio umeak gogoratzen duenagatik eta motibazioagatik abesti batzuen esaldiak erreproduzitzen ditu baina intonaziorik gabe (Sarget, 2003). Pascualek

gehitzen du umea gai dela musika eta soinua desberdintzeko, lehenik hitzak antzematen ditu, bigarrenik erritmoa eta hirugarrenik melodia (Pascual, 2006).

3-4 urterekin, umea gai da abestiak abesteko eta sormena erakusten hasten da dantza egitean edo abestiak asmatzean. (Akoschky, et,al. 2009). Hiru urtetik aurrera koordinazioa hobetzen doa eta gorputzaren kontrola du. Gero eta mugimendu zehatz gehiago egiten ditu. (Sarget, 2003 eta Pascual, 2006).4-5 urterekin soinuak erreproduzitzeko gaitasun sinbolikoa gero eta hobetuz da eta abestiak gero eta hobeto gogoratzen ditu. Koherentzia erakusten du abestien esaldien artean eta intonatzeko gaitasuna handiagoa da. Gainera, abestiak asmatzeko gaitasuna erakusten du.

5-6 urterekin mugimenduan koordinazioa agertzen da eta musikaren erritmoa jarraitu dezake txaloak emanaz. Garapen motorra zein entzuketara musikalari esker, umeak saltoak eta dantza egin dezake musikaren erritmoa jarraituz. (Akoschky, et,al. 2009 eta Pascual, 2006).

3.2- ARLOAREN EGOERA

- IPUINA BALIABIDE GISA HAUR HEZKUNTZAN

Montoyaren esanetan entzutea eta kontatzea gizakiaren oinarrizko beharrak dira. Haur literaturak haurren sentsibilitate estetikoak sustatzen laguntzen du, modu ludiko eta didaktiko baten bidez. (Montoya, 2002). Horregatik, Fernandez-en aburuz, Haur Hezkuntzako etapan Haur literatura lantzea oso baliogarria da eta beraz, ipuina da baliabide gisa erabiltzen dena. (Fernandez, 2010)

Literaturaren transmisioa hasieran ahoz zen eta ondoren ipuin idatzien bidez izatera igaro da. Ipuina literatura eredu bat da eta umeek horri esker mundua ezagutzen eta deskubritzen dute. Ipuina arlo pedagogikoan funtsezko elementua da eta haren bidez umeen sormena, lasaitasuna, poza, haserrea edo entretenimendua lantzen da. Gainera, umeek ipuinen bidez baloreak ikasten dituzte eta bizitzako arazoak edo egoerak ezagutzen dituzte. (Fernandez, 2010)

Ipuinak sentimenduak eta pentsamendu sinbolikoa garatzeko baliabide gisa erabiltzen da. Ipuinaren bidez umeek plazera sentitzen dute eta haien arteko interakzioa ematen da, hau da, irakurmenaren eta entzuketaren bidez elkar eragina sustatzen da eta ahozko hizkuntza lantzen da. Umeek pertsonaiekin identifikatzen dira eta horrek segurtasuna eta konfiantza ematen die. Hau da, ulermena garatzen dute eta

esperientzia ugari izaten dituzte ipuin desberdinekin. Laburbilduz, ipuinek garapen linguistikoa, kognitiboa, soziala eta psikologikoa sustatzen dute. (Fernandez eta Ruiz, 2010)

- IPUIN MUSIKALA HAUR HEZKUNTZAN

1910. urtean J.G.Thulin Instituto Sud-Sueco de Gimnasiako zuzendariak "ipuin-kirola" sortu zuen. Bere ideia ume txikiek ipuina eta heziketa fisikoa batera lantzea zen, beraz, ipuina eta heziketa fisikoa batu zituen. Umeek, ipuinak kontatzen zituen gertakariak edo narrazioa mugimenduen, ariketa fisikoaren eta dramatizazioaren bidez adierazten zuten, elementu musikalen laguntzaz. Hortik aurrera, ipuin musikala praktikan jarri zen hainbat eskoletan eta ez bakarrik heziketa fisikoa lantzeko, baizik eta egunerokotasunaren gaiak eta jarduerak irudikatzeko eta dramatizatzeko. (Arguedas 2006).

Musikak eta ipuinen lotura ipuin musikala sortzen du eta helburua irakurmen iradokitzailea, argiak eta erakargarriak egitea da. Musika eta ipuinaren arteko loturari esker narrazioak zentzua irabazi du, hau da, emozio eta bizitza gehiago du. Literatur genero berri honen bidez umeen sormena, arreta, poztasuna, fantasia eta pentsamendu kritikoa lantzen eta bermatzen da. (Vicente-Yagüek eta Guerrerok, 2015).

Ipuin musikala Haur Hezkuntzarako baliabide egokia da umeen parte-hartzea sustatzen duelako eta umeek eguneroko gaiak ipuinen bidez ezagutzen dutelako. Gainera, adierazpen plastikoa, linguistikoa, gorputz adierazpena eta dramatizazioa garatzen laguntzen du. Umeek gorputz adierazpenaren bidez sentimenduak eta emozioak transmititzen dute eta horren ondorioz haien buruarekiko irudi orekatua garatuko dute. Hori bai, plazera eta ipuin musikalaren zentzu ludikoaz ezin gara ahaztu, horiek garapen globala sustatzeko oinarriak direlako. (Rodriguez, 2016).

Beraz, ipuin musikalak garapen kognitiboan, afektiboan eta psikomotorrean eragin positiboa du eta lotura horren bidez umearen garapen integrala sustatzea da helburua. (Arguedas 2006).

Gaur egun musika lantzeko dagoen materialari dagokionez, hainbat bilduma daude musika lantzen dutenak. Alde batetik, ipuin musikalak daude, hau da, ipuinean zehar musika (instrumentu musikalen soinua edo musikagile baten obra) entzuten direnetan botoi bat sakatuz edo CD bat dutenak eta bestetik, musika kontzeptuak lantzen duten ipuinak daude baina muskarik entzun gabe.

Hasteko, Magali Le Huche idazle frantsesak musika lantzeko ipuin musikalez osatutako bilduma dago. Frantsesez idatzitako bilduma da baina gazteleraz eta euskaraz itzulita

dago. Gaztelerazko bertsoan Timunmas argitaletxeok (Colección libros musicales de Paco) ipuin musikaletan instrumentu musikalak eta musikagile famatu batzuk aurkezten dira. Adibidez, *Paco y el rock*, *Paco y Vivaldi eta Paco y la orquesta*. Euskarazko bertsoan Ttartalo argitaletxeok, Pintto da protagonista eta lau ipuin dira Haur Hezkuntzan lantzeko: *Pintto eta orkestra*, *Pintto eta fanfarrea*, *Pintto eta rocka eta Pintto eta musika afrikarra*. Ipuin musikal hauetan instrumentu desberdinen soinuak entzuten dira.

Marion Billele idazleak “Instrumentos” bilduman Timunmas argitaletxeok, bi ipuin musikalak ditu gazteleraz idatzita. *Los instrumentos* eta *Los instrumentos del mundo* ipuin musikaletan instrumentuen soinuak entzuten eta aurkezten dira ipuinean zehar dauden botoiak sakatuz.

Emilie Collet idazle frantsesak Haur Hezkuntzan musika edukiak lantzeko ipuinak idatzi ditu. Ipuinean zehar botoiak sakatu behar dira, instrumentu musikalen soinuak eta musikagile famatuen obra zati batzuk entzuteko. Gazteleraz aurki ditzakegun liburuak dira, adibidez, *Mi primer Vivaldi*, *Mi primer Mozart*, *Mi primer Beethoven*, *Mi primer Bach*, *Mi primer Chopin eta Mi primer carnaval de los animales*.

Isabel Zambujal eta Maria Pedroren *Do y mi descubren instrumentos I eta Do y mi descubren instrumentos II* ipuinak Haur Hezkuntzan musika edukiak lantzeko daude. Ipuin musikal hauetan Mozart, Bach eta Vivaldiren musika entzun daiteke ipuinak duen cd-arekin. Hortaz aparte, *Do y mi descubren grandes compositores* bilduma dago baina Lehen Hezkuntzan lantzeko egokiagoa da.

“Los más grandes para los más pequeños” bilduman, Mariano Veloy-ek *Mozart* izeneko ipuina argitaratu zuen. Ipuinean Mozart-en bizitza azaltzen da eta amaieran jarduera batzuk proposatzen ditu.

María Isabel Sánchez Vegarak Pequeño&Grande bilduman hainbat liburu argitaratu ditu beste idazleen laguntzaz. Bilduma honetako liburuek gazteleraz daude eta pertsona ospetsu eta garrantzitsuen bizitza eta lorpenak kontatzen dituzte, adibidez, *Pequeño&Grande Frida Kahlo*, *Pequeño&Grande Marie Curie edo Pequeño&Grande Stephen Hawking*. Musika edukiak lantzeko bi liburu argitaratu ditu, *Pequeña&Grande: Ella Fitzgerald eta Pequeño&Grande: David Bowie*.

Anna Obiols idazleak, *Los grandes compositores y los niños* bilduman antzinako musikagileak erakusteko ipuin musikalak idatzi ditu. Ipuinak cd-ak dituzte musikagileen obren zatiak entzuteko. Haur Hezkuntzan lantzeko ipuinak dira eta ipuinen izenburu

batzuk hauek dira: *Bach y los niños, Beethoven y los niños, Tchaikovsky y los niños y el pequeño Mozart y el anillo mágico.*

Fuzeau izeneko markak, umeein musika lantzeko material didaktikoa eskaintzen du. Eskolak, kontserbatorioak eta musika eskoletan erabiltzeko instrumentuak egiten ditu. Adibidez, *mini metallonotes, flauta de embolo* edo *koloretako kanpaiak.*

Amaitzeko, María Pilar Ochoak hezkuntza musikala lantzeko sistema bat sortu du, *Tutti da capo* deitutakoa. 2-16 urteko tartean musika lantzeko jarduerak eta baliabideak aurkezten ditu: Testuliburuak gida didaktikoarekin eta audio materialarekin eskolan lantzeko.

4- HELBURUAK:

Lan honen helburu nagusia ipuin musikal bat sortzea da musika lantzeko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, 4-5 urteko umeekin.

Hemendik abiatuta, ipuinaren sorkuntzarekin eta garatutako jarduerekin hauxe lortu nahi dugu

- Musikaren historiako musikagile garrantzitsu batzuen irudia ezagutzea: Vivaldi, Mozart eta Beethoven nortzuk ziren jakitea eta haien bizitza ezagutzea. Hortaz, musikagile hauek non jaio ziren, ze instrumentu jotzen zuten eta zein den bakoitzaren obra garrantzitsuena ikusiko dugu.
- Instrumentu musikalak ezagutzea: Ipuinaren bidez hainbat instrumentu ezagutuko ditugu (tronpeta, danborra, biolina, xilofonoa, gitarra, pianoa, triangelua eta klarinetea) eta bakoitzak egiten duen soinua entzun. Gainera hainbat jardueren bidez instrumentu hauek nola jotzen diren ikasiko dugu.
- Kontzeptu musikalak lantzea: Proposatutako jardueren bidez, musikaren oinarrizko bost atalak landuko ditugu: hizkuntza musikala, mugimendua, entzumena, ahotsa eta kantua eta instrumentuak.

5- METODOA

- Gradu Amaierako lan hau aurrera eramateko hainbat pauso jarraitu ditugu, hona hemen azalduak.
- Musikaren inguruan hainbat artikulu, liburu eta informazio irakurri eta ikertu dugu musika hezkuntzaren garrantziaz eta onuraz jakiteko. Zehazki, 0-6 etapan.
- Gaur egun musika lantzeko dagoen material eta baliabideak bilatu eta aztertu ditugu.
- Proposamen didaktikoa sortu dugu, ipuin musikala eta horrekin erlazioa dituzten jarduerak. Baita ere soinu bilduma sortu dugu bai ipuinean bai jardueretan erabiltzeko.
- Proposamen didaktikoa analizatu dugu curriculumeko musika zein beste hainbat eduki, helburu eta gaitasunak aztertuz.
- Gure proposamen didaktikoaren ondorioak atera ditugu.
- Azkenik, proposatutako ipuin musikala eta jardueraz aparte, lan honetan egin daitezkeen hobekuntzez hitz egin dugu eta jarduera eta ideia gehiago proposatu ditugu.

6- EMAITZAK – PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Emaitzei dagokienez, proposamen didaktiko hau aurrera eramateko egin dugun lehenengo ekarpena ipuin musikala izan da. Egindako minorraren gaia Liburutegiak eta Irakurzaletasunaren sustapena izan zenez, ipuin asko ezagutu genituen eta umeentzako zein helduentzako hainbat gai ipuinaren bidez landu ahal zirela ikusita, musika ipuin baten bidez lantzea pentsatu genuen.

Ondoren, ipuin musikalaren mamia lantzeko, horrekin erlazionatutako jarduerak proposatzen ditugu. Jarduera bakoitza ipuinaren orrialde batekin doa lotuta, beraz, jarduera batzuk praktikan jartzeko ipuinaren orrialde batzuk erabiliko ditugu. Beraz, proposamen didaktiko honetan zehar musikaren bost atal nagusiak lantzen saiatuko gara.

Hasteko, ipuinaren kontaketa azalduko dugu eta ondoren jarduera bakoitzaren azalpena emango dugu.

1- JARDUERA: IPUIN MUSIKALA (Kontaketa) (1.eranskina)

Ipuinaren protagonista Jokin da, bost urteko ume bat asko gustatzen zaionari bere aita tronpeta jotzen ikustea. Kontakizun honetan Jokin musikaren inguruan gauza asko erakusten digu. Kontaktaren helburua alde batetik, umeek instrumentu desberdinak nola jotzen diren eta ze soinu egiten dituzten jakitea eta ezagutzea da. Bestetik, hiru musikagileak nortzuk ziren eta zer egin zuten ezagutzea da. Ipuinaren kontaketa entzumena, dramatizazioa eta hizkuntza musikala landuko da.

Irakasleak ipuina kontatuko du eta kontakizunean zehar Jokin, ipuinaren protagonistaren papera egingo du. Irakasleak ipuinaren orrialdeetan instrumentu musikala bat agertzen denean (4,5,8,10,11, 12, 14, eta 17 orr.) instrumentuaren soinua edo bideoa jarriko du. Kontakizunean zehar instrumentuak nola jotzen diren imitatuko (bideoa edo soinua jotzen duen bitartean) du eta umeek imitatuko dute. Hau da, irakasleak ipuina dramatizatuko du eta umei galderak egingo die haien laguntza eskatuz. Adibidez, 15. orrialdean, umeek notak pentagraman jartzen lagunduko dute.

Materialari dagokionez, ipuina eta sortutako soinu bilduma erabiliko dugu ipuinaren instrumentuen soinua edo bideoak entzuteko. Horretarako, nahiz eta ipuina eduki, soinua entzuteko edo bideoak ikusteko ordenagailua edo arbel digital bat behar dugu. Hurrengo estekan soinu bilduma bat sortu dugu eta bertan lau karpeta daude.

Kontaketarako bi karpeta bakarrik erabiliko ditugu, bata instrumentuen soinua deitzen dena izango da eta bestea hauek nola jotzen diren bideoak ikusteko.

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkqgDxBKgQEgjMXOkJ_UvpBG36

Denbora eta espazioari dagokienez, gutxi gorabehera 15minutuko kontakizuna izango da eta edozein gela egin daiteke, ordenagailu bat izanez gero.

2- JARDUERA: INSTRUMENTUAK EZAGUTZEN! (5 or.) (2. Eranskina)

Jarduera honen helburua umeak instrumentu bakoitza zein den jakitea da eta bakoitzak egiten duen soinuarekin identifikatzea da. Irakasleak ipuinean landutako instrumentuen marrazkiak banan-banan erakutsiko dizkie umeei eta haiek instrumentu bakoitzaren izena ozenki esango dute. Hau da, irakasleak tronpeta erakutsiko die eta umeei tronpeta dela esan behar dute.

Instrumentu guztien izenak esan eta gero, ipuinaren kontaketa entzundako instrumentuen soinua berriz entzungo dituzte eta instrumentu egokiarekin erlazionatu beharko dute. Horretarako, irakasleak instrumentu baten soinua jarriko du, adibidez triangela. Umeei instrumentu irudiak aurrean izango dituzte guztiak batera ikusteko eta bakoitzaren soinuarekin errazago identifikatzeko. Kasu honetan, triangela entzutean triangela dela esango dute eta orrialdean seinalatuko dute. Instrumentu baten soinua identifikatzen ez badute hurrengo instrumentuaren soinua jarriko dugu.

Azkenean, instrumentu guztiak erlazionatuko dituzte eta soinuren bat ezagutzen ez badute irakasleak lagunduko die. Amaitzeko, instrumentu guztiak egiten duten soinu egokiarekin erlazionatu eta gero, nola jotzen diren imitatuko dugu guztiok batera eta horretarako aurreko jardueran erabilitako bideoak edo soinua bakarrik jarriko dugu. Umeei jarduera honekin entzumena eta dramatizazioa landuko dute.

Irakasleak umeei utziko die nahi duten instrumentua imitatzen, horrela, haien interesa eta parte hartzea sustatuko du. Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea izango da eta instrumentu baten nola jotzen den edo ze soinu egiten duen asmatzeko zailtasunak izaten badute irakaslearen laguntza izango dute.

Ipuinaren 5.orrialdearen marrazkiak eta goian aipatutako estekan eskuragarri dagoen soinu bilduma erabiliko ditugu (instrumentu baten soinua karpeta) jarduera hau egiteko. Gainera, arestian aipatu dugun bezala instrumentu baten soinua entzuteko eta bideoak ikusteko ordenagailua behar dugu.

Denbora eta espazioari dagokionez, 10 minutuko jarduera izango da eta edozein gelan egin daiteke

3- JARDUERA: NON JAIO ZIREN GURE MUSIKAGILEAK? (6,9,13 or.) (3.eranskina)

Jarduera honen bidez, ipuinean ezagututako hiru musikagileen herrialdeak ikusiko ditugu. Ipuinaren kontakizunean ikusi dugu musikagile bakoitzak herrialde desberdinean jaio dela, beraz, herrialde horiek benetan daudela ikusteko hurrengo jarduera egingo dugu. Irakasleak atlas bat eramango du gelara eta Europako mapa aurkeztuko die umeei. Irakasleak bizi diren tokian, hau da, haien herrialdea mapan kokatuko du gomets batekin eta ondoren, hiru herrialdeak bilatuko ditu banan-banan. Herrialde bakoitza ikusiko dute eta gure herrialdetik zenbateraino dagoen ikusiko dugu. Herrialde bakoitzean gomets bana jarriko dugu baita kokapena ez galtzeko.

Hiru herrialdeak atlasean ikusi eta kokatu ondoren, jardueraren bigarren zatia egingo dugu. Irakasleak mapa erraldoi bat eramango du klasera eta mapa horretan gure herrialdea, hiru musikagileen herrialdea eta ume atzerritarrak izanez gero, haien jaioterria mapa handian kokatuko dugu. Lehenengo, ume bakoitzak jaio eta bizi den lekuan markatuko du mapan gomets batekin. Ume atzerritarrak egonez gero, haien jaioterria markatuko dute gomets batekin eta bizi diren lekuan beste batekin. Azkenik, hiru musikagileen herrialdeak markatuko ditugu.

Bukatzean, gelako kortxean jarriko dugu eta ipuina kontatzen dugun bakoitzean erabilgarria izango da herrialdeen kokapena ikusteko. Nahiz eta jarduera konplexua izan, munduko hainbat herrialdeen ezagutza izateko erakargarria izan daitekeen jarduera da. Gainera, bakoitzak non jaio eta bizi den ikusteko eta kokatzeko baliogarria izango da.

Umeentzat mapa handian kokatzea oso zaila izango denez, irakasleak lagunduko eta gidatuko die eta gainera atlasa erabiliko dugu kokapena gehiago argitzeko.

Erabiliko dugun materiala, munduko atlas bat, gometsak eta munduko mapa handi bat izango da. Ume atzerritarren jaioterriaren arabera irakasleak ikusiko du ze mapa inprimatzen duen. Beharbada, ume atzerritarrek Europan jaio dira, beraz, Europa maparekin nahikoa izango dugu. Denbora eta espazioari dagokienez, 10-15 minutuko jarduera da eta gelan egingo dugu.

4- JARDUERA: VIVALDI (8 or.) (4.eranskina)

- 4.1 JARDUERA: VIVALDIREN URTAROAK DANTZATZEN!

Jardueran honen bidez Vivaldiren obra nagusia ezagutuko dugu. Bere obra Lau Urtaroak deitzen zen eta hurrengo jarduera egingo dugu urtaro bakoitza ezagutzeko. Vivaldiren obra ezagutzeaz gain, entzumena, mugimendua eta dramatizazioa landuko dugu jarduera honen bidez.

Urtaroak ezagutzeko urtaro bakoitzaren mugimendu bat entzungo dugu (mugimenduaren zati bat). Musika entzuten dugun bitartean, keinuen bidez irudikatuko dugu entzundakoa urtaro bakoitza desberdintzeko. Urtaro bakoitzak egoera, emozio edo sentimendu desberdinak transmititzen duenez, urtaro bakoitzean keinu eta mugimendu desberdinak egingo ditugu. Umeek urtaro bakoitza entzun baino lehen irakasleak esango die zein urtaroa den. Hona hemen jarduera garatzeko azalpena.

Hasteko, udaberriaren txori asko hegan egiten ikusten ditugunez, urtaro honetan txoriak garelako imajinatuko dugu. Horretarako, hegan egingo bagina bezala, besoak luzatuko ditugu eta gora eta behera mugituko ditugu. Modu honetan, umeentzat soinua mugimenduarekin erlazionatzea erraza izango da urtaro bakoitza zein den jakinda. Udaberriaren lehenengo mugimenduaren zati bat erabiliko dugu.

Bigarrenik, udazkenean hostoak erortzen direnez, ume bakoitza oihala bat hartuko du eta haizeak oihala hegan eramango balu bezala egingo dugu. Horretarako gelatik ibiliko gara oihala mugitzen, batzuetan azkar eta beste batzuetan motel. Udazkenean bigarren mugimenduaren zati bat erabiliko dugu.

Hirugarrenik, neguan hotza egiten duenez, etxera joaten gara azkar-azkar, beraz, etxerako "bidea" saltoka, puntetan, saltoka hanka batekin, makurtuta irudikatuko dugu gelatik, azkenean etxera iristeko. Neguaren lehenengo mugimenduaren zati bat erabiliko dugu.

Azkenik, udan oporrak ditugunez, oso lasai gaude, beraz, urtaro honen musika entzungo dugu eta erritmoa jarraituz mugituko gara. Pauso motelak emango ditugu eta lasai ibiliko gara. Urtaroaren lehenengo mugimendua erabiliko dugu.

Irakaslea gidatzailea izango da jarduera honetan, hau da, irakasleak, urtaro bakoitza irudikatuzeko goian azaldutako mugimenduak egingo ditu. Umeek keinuak eta mugimenduak imitatuko dituzte, baina beste aukera izango da umei bururatutako keinuak egitea. Beraz, hasieran irakasleak aukeratutako mugimenduak egingo ditugu eta ondoren, umei aukera izango dute haiek imajinatutakoa egiteko.

Urtaro bakoitzaren mugimendu baten zatia erabiliko dugu. Horretarako estekan sartuz, soinu bilduman 4. Jarduera izeneko karpetan eskuragarri izango ditugu. Horretaz gain, oihalak edo izarak eta ordenagailua.

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkgqDxBKgQEgjMXOkJ_UvpBG36

Denbora eta espazioari dagokionez, jarduera hau 20-30 minutu iraundu dezake eta gelan zein kanpo espazio batean egin daiteke.

- 4.2 JARDUERA: VIVALDIREN URTAROAK!

Jarduera honen bidez, Vivaldiren obra landuko dugu eta aurreko jardueraren jarraipena dela esan daiteke. Umeak urtaro bakoitzaren musika desberdintzeko gai direnean, ipuinean ikusitako marrazkiak erabiliko ditugu jarduera hau egiteko. Jarduera hau taldeka egingo dugu, beraz, ume kopuruaren arabera taldeak egingo ditugu eta talde bakoitzari txartel bat emango zaio (behean ikusi daitezke).

Irakasleak ze urtaro entzungo duten esan gabe, aurreko ariketan entzundako urtaro bakoitzaren mugimenduaren zati berdina entzungo dute eta zein urtaro den asmatu behar dute. Hau da, udazkena jotzen ari bada udazkenaren txartela duen taldeak altxatu beharko du. Asmatzen ez badute, aurreko jardueran egindako keinuak gogoratuko ditugu ea modu honetan asmatzen dugun. Jarduera honen bidez entzumena lantzen dugu.

Irakasleak jarduera gidatuko du eta laguntza eskainiko die umeei urtaro bakoitza identifikatzeko zaitasunak dituztenean.

Erabiliko dugun materiala txartelak (4.eranskina), musika (estekan sartuz 4.jarduera izeneko karpetan) eta ordenagailua musika jartzeko izango da.

Denbora eta espazioa, 15 minutuko jarduera da eta gelan egingo da.

5- JARDUERA: PIANO JOTZEN! (12 or.) (5.eranskina)

Ipuinean nolakoa da pianoa eta nola jotzen den ikusi dugunez, jarduera honekin pianoaren teklatura ikusiko eta ezagutuko dugu. Horretarako, jarduera honen bidez ume bakoitzak bere pianoaren teklatura egingo du. Irakasleak ume bakoitzari folio batean piano baten teklatura eta zazpi borobil marraztuta emango die. Umeek markatuta izango dituzte margotu beharreko teklak.

Pianoaren teklak margotu ondoren, zazpi borobilak margotuko dituzte bakoitza kolore batez. Borobilak “do, re, mi, fa, sol, la eta si” notak izango dira, beraz, ipuinean ikusitako noten kolore berdinekoak izango dira. Margotu eta gero, notak moztuko dituzte eta teklatuan itsatsiko dituzte, bakoitza dagokion lekuan. Horretarako ipuinaren orrialdea ikusgarri jarriko dugu haiek ikus dezaten zein da tekla bakoitzaren nota. Jarduera honen bidez entzumena landuko dugu eta notak pianoaren teklatuan nola kokatzen diren ikasiko dugu jolasaren bidez.

Dena bukatzen dugunean, ume bakoitzak bere teklatura izango du. Jardueraren bigarren zatia pianoa jotzea dugu helburu eta horretarako tableta edo arbel digital baten laguntzaz umeek tekla desberdinen soinua entzungo dute. Hona hemen pianoaren teklatura lortzeko link-a. <https://teclado-pianovirtual.online/>

Hasieran irakasleak gidatuko du jarduera eta gero umeen parte-hartzea eskatuko du. Adibidez, Irakaslea: non dago “mi” nota?. Ume bakoitzak bere teklatura seinalatuko du irakasleak eskatzen duen nota. Ondoren, irakasleak “mi” nota sakatuko du deskargatutako teklatura eta “mi” notaren soinua entzungo dute. Umeek parte hartzeko tableta edo erabiltzen dugun beste euskarria irakaslearen laguntzarekin erabiliko dute. Modu honetan, umea izango da erabakiko duena ze nota joko duten beste umeek.

Materialari dagokionez, alde batetik, teklatura eta borobilak (notak) inprimatuak, margoak, pegamendua eta artaziak. Bestetik, tableta edo beste euskarri bat teklatura birtuala erabiltzeko. Denbora eta espazioa, 20-30 minutuko jarduera da eta gelan egingo dugu.

6. JARDUERA (15 or.) (6 .eranskina)

- 6.1 JARDUERA: PENTAGRAMA SORTU.

Jarduera hau egiteko umeak taldeka jarriko dira. Ume kopuruaren arabera, talde gehiago ala gutxiago egingo ditugu. Jarduera hasi baino lehen, ipuinaren orrialdea erabiliko dugu umei nota bakoitzaren kolorea eta kokapena gogoratzeko. Jarduera honen bidez, talde bakoitzak pentagrama handi bat egingo du. Jarduera honen helburua notak koloreekin erlazionatzea da eta nota bakoitza ze lekutan kokatzen den jakitea da.

Lehenik, irakasleak sol klabe handi bat marraztuta emango die eta taldeko ume guztien artean margotuko eta moztuko dute. Ondoren, paper handi batean, pentagramaren lerroak margotuko izango dituzte eta bertan notak jarriko dituzte. Notak margotzeko, eskuko margoa erabiliko dugu eta ipuinean ikusitako Fuzeau markako koloretako kanpaiak kolore bezalakoak margotuko ditugu. Idei hori erreferentziatzen hartuko dugu,

beraz, kolore gorria, laranja, horia, berdea, urdin argia, urdin iluna eta arrosa erabiliko ditugu nota bakoitza margotzeko.

Orduan, taldeko ume bakoitzak nota bat izango du, hau da, imajina dezagun ume batek kolore arrosa duela. Ume horrek gogoratu behar du kolore arrosak "SI" nota irudikatzen duela, eta nota horrek zein lerroan edo hutsunean kokatzen den. Ipuinaren orrialdea arbelean itsatsiko dugu haiek gogoratzen ez badute, arbelera joango dira ikustera. Beraz, behin jakinda ume bakoitzak ze nota duen, notak horrek irudikatzen duen kolorean sartuko du eskua eta pentagraman estanpatuko du. Azkenik, hasieran egindako sol klabea itsatsiko dute leku egokian. Umeek hizkuntza musikala landuko dute jarduera honekin.

Erabiliko dugun materiala eskuko margoak (7 kolore), sol klabea, pentagrama, margoa, artaziak izango da. Irakaslearen papera laguntzailea eta gidatzailea izango da. Espazioa eta denborari dagokionez, jarduera hau gelan egin daiteke eta 15-20 minutukoa izango da.

- 6.2 JARDUERA: NOTAK PENTAGRAMAN JARTZEN!

Jarduera hau egiteko euskarri moduan ipuinaren 15. orrialdea erabiliko dugu. Orrialde horretan, Jokinek, ipuinaren protagonista, notak pentagraman jartzeko laguntza eskatzen digu. Beraz, erronka horri aurre egiteko jarduera hau proposatuko da.

Jarduera honetarako, Fuzeau markako koloretako kanpaiak baliabide gisa erabiliko ditugu. Irakasleak kanpaiak gelara eramango ditu eta umei erakutsiko die kanpai bakoitzak kolore bat duela eta soinu bat egiten duela, nota desberdinak irudikatuz.

Beraz, lehenik, irakasleak kanpai guztiak banan-banan joko ditu umeek kanpai bakoitzak soinu bat egiten duela entzuteko. "Do" notatik hasita, behetik gora, kanpai bakoitza jotzen duenean, irakasleak kolore horrek ze nota irudikatzen duen esango du. Hori egin eta gero, orrialdearen pentagraman notak jartzen saiatuko dira. Irakasleak nahi duen kanpaia joko du eta ze nota den galdetuko die umei.

Umeek ipuinaren orrialdean ikusiko dute nota bakoitzak kanpaien kolore berdinekoak direla, beraz, kanpaiaren kolorea eta notaren kolorearen arteko berdintasuna ikustean, kanpaia ze nota den jakingo dute. Irakasleak lagunduko die nota bakoitza leku egokian kokatzen, hau da, ze ordenan doazen eta marran ala hutsunean jartzen diren. Nota guztiak pentagraman jartzeko prozesu berdina egingo da kanpai guztiekin.

Umeak lurrian eseriko dira eta irakasleak aukeratuko du zein ume jarriko duen nota. Umeek jarduera honekin kanpaien kolorea eta noten kolorearekin erlazionatuko dute eta

gainera noten soinu desberdinak entzungo dituzte. Umeek entzumena eta hizkuntza musikala landuko dute.

Irakaslearen papera jardueraren gidatzailea eta laguntzailea izango da eta ume guztien parte-hartzeaz arduratuko da Nahiz eta bost urteko umeentzat jarduera zaila izan, oso interesgarria izan daiteke ikustea nola umeek kanpaien soinu ezberdinez konturatzen dira.

Erabiliko dugun materiala: koloretako kanpaiak eta ipuinaren orrialdea izango da. Denbora eta espazioa, 10 minutuko jardura izango da eta edozein gelan egin daiteke

7. JARDUERA (16 or.)

- 7.1 JARDUERA: 9.SINFONIA? ZELAKO ZORAMENA!

Ipuinean Beethoven nor zen ezagutuko dugunez, oraingo honetan bere obra landuko dugu hurrengo jardueran. Beethovenen obra garrantzitsuenetako bat 9.sinfonia dela jakinda, sinfoniaren lehenengo mugimenduaren bi zati txiki entzungo ditugu. Aukeratutako zati horietan musikaren elementu batzuk landuko ditugu, hala nola, musikaren intentsitatea eta abiadura.

Lehenengo aldian, eserita entzungo ditugu sinfoniaren bi zati horiek eta gero irakasleak galderak egingo dizkie. Nolako da musika? Lasaia?, azkarra?, aldakorra?, finkoa?... Nahiz eta bost urteko umeentzat zaila izan galdera hori erantzutea, umeak konturatuko dira musikaren ezaugarri desberdinez, hau da, batzuetan azkarra dela, beste batzuetan bolumena aldatzen dela eta abar. Ondoren, galdetuko die zer imajinatzen dute edo zer pentsatzen dute musika horrek esan nahi duela. Beharrezkoa bada, musika berriz jarriko dugu. Umeek hausnarketa egingo dute, hau da, umeak musika entzutean imajinatzen dituzten edo izaten dituzten ideiak, sentimendua eta sentsazioak ahotsaren bidez transmititzea saiatuko gara.

Hori egin ondoren, aldi honetan, sinfoniaren bi zati horiek berriz entzungo ditugu, umeek mugimenduaren bidez hitz egindako sentsazioez, sentimenduez eta abar transmititzeko edo komunikatzeko. Umeak zer egin jakin gabe geratzen badira, irakaslearen laguntza izango dute. Bera hasiko da mugimendu desberdinak egiten, adibidez, besoak mugitzen, pauso luzeak eta txikiak ematen, saltoak ematen, oinekin lurraren kontra emate eta abar. Ondoren, umeen txanda izango da, beraz, irakasleak ume baten izena esango du eta ume horri kopiatuko diogu egiten dituen keinu edo mugimenduak.

Aukeratutako sinfoniaren zati hauetan musikaren erritmo desberdinak entzun ditzakegu, beraz mugimendu desberdinen bidez adieraziko ditugu aldaketa erritmoak edo bururatzen zaiguna.

Haur bakoitza protagonista sentituko da bere txanda izaten denean eta gainera elkarren arteko komunikazioa emango da mugimendu adierazpen musikalaren bidez. Bitan edo hirutan errepikatu ahal da jarduera ume bat baino gehiago parte har dezan. Beraz, hitzezko komunikazioa eta gorputz-hizkuntza landuko dugu jarduera honetan, hau da, bai mugimenduaren bidez, bai ahoz umeek musika iradokitzen edo transmititzen diena erakutsiko dute eta besteekin partekatuko dute.

Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea izango da. Bost urteko umeentzat ariketa zaila den arren, irakasleak motibazioa sustatuko du eta erakargarria egiten saiatuko da. Gainera, jarduera berezia eta berria izan daitekeenez ume lotsati edo lasaiantzat oso egokia izan daiteke, barruko sentimendua edo sentsazioak erakusteko eta transmititzeko.

Materialari dagokionez, estekan sartu eta sortutako soinu bilduman 7. Jarduera deitzen den karpeta egongo da . Bertan, 7.1 jarduera 1 atala eta 7.1 jarduera 2 atala sortutako karpetak egongo dira bi zatiak entzuteko.

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkgqDxBKgQEgjMXOkJ_UvpBG36

Denbora eta espazioa: 15 minutuko jarduera izango da eta gelan edo psikomotrizitate gelan egin daiteke.

- 7.2 JARDUERA: BEETHOVEN NAIZ!

Ipuinaren orrialde honetan Beethovenek egindako obra ezagutuko dugunez, jarduera hau egiteko Beethoven garela imajinatuko dugu eta guztion artean gure obra musikala egingo dugu. Hau da, kontzertu bat egingo dugu. Horretarako, irakasleak eskolako objektu edo berak gelara ekarritako materialak eskainiko die umeei. Soinua egiten duten materialak edo objektuak izango dira, umeek instrumentuak jotzen ari direla imajinatzeko. Beraz, ume bakoitzari soinua egiten duen objektu edo tresna emango die alde batetik.

Bestetik, Beethovenez mozorrotuko dira eta horretarako irakaslea oihalak eta izarak eramango ditu gelara. Banaketa egin eta gero, ume guztien artean sortuko duten obra musikolari izena jarriko diote. Guztion ideiak kontuan hartuko dira izena erabakitzeko eta azkenean izen bat aukeratuko dute. Ondoren, irakaslea taldeak egingo ditu (instrumentuak) jotzeko txandak errespetatzeko.

Irakaslea zuzendaria izango da eta seinalatzen joango da taldez talde, hau da, nor joko duen erabakiko du Nahi duen soinu segida sortuko ditu eta umeak nola jotzen duten ikusiko du. Erritmo desberdinak sortu dezake baina oso errazak izango dira. Umeek bakarrik jo dezakete zuzendariak seinalatzen dietenean. Zuzendaria aldatzeko aukera egongo da, nahi duen umeak probatzeko. Alde batetik, umeek jolasaren arauak ulertu eta bete beharko dituzte, hau da, zuzendariak esaten duenean jo ahalko dute haien instrumentua. Bestetik, umeek musikagilea (Beethoven) direla eta kontzertu batean daudela imajinatuko dute eta haien interpretazioa sortuko dute.

Jarduera honekin dramatizazioa eta entzumena landuko dugu. Gainera, umeen parte hartzeari taldearen barruan eta guztion ideiak kontuan hartzeari garrantzia emango da. Gurasoen baimenarekin argazkiak eta bideoak egin ditzakegu gure kontzertua egiten dugun bitartean, gero haiei erakusteko eta umeek etxean jarduera kontatzeko. Gainera, bidez batez, gelan txoko bat egin dezakegu egindako argazkiak zintzilikatzeko. Jarduera hau beste aldi batean egiten bada, objektu desberdinak emango diegu umei, objektu ezberdinak probatzeko.

Erabiliko dugun materiala oihalak, izarak eta objektuak zaratatsuak izango dira. Denbora eta espazioa, 20 minutuko jarduera izango da eta edozein gelatan egin dezakegu.

- 7.3 JARDUERA: ZER DA POZTASUNAREN ERESERKIA ?.

Ipuinaren orrialde honetan Beethovenen obra nagusienetariko bat 9.Sinfonia dela ikusi dugu, eta sinfonia horren azken mugimendua Poztasunaren ereserkia deitzen dela jakin dugu. Jarduera honetan Poztasunaren ereserkia entzungo dugu, ume bakoitzak bere interpretazioa egingo du eta guztion artean entzundakoaren hausnarketa egingo dugu.

Horretarako, entzuketa hiru aldiz egingo dugu. Esan dugun bezala, Poztasunaren ereserkia jarriko dugu baina ahotsa barik, hau da, orkestra bakarrik eta konkretuki zati bat entzungo dugu.

Lehenengo aldian, motibazio moduan, bakarrik entzuketara egingo dugu eta umeei lehenengo inpresioak jasoko dituzte. Bigarren aldian, umeei folio eta margo bana emango diegu eta azalduko diegu entzungo dutena folioan irudikatu beharko dutela. Hau da, musikak transmititzen dieten sententzioak, emozioak, irudiak eta abar egin beharko dituzte. Beraz, irakasleak musika jarriko du eta libreki utziko die nahi dutena irudikatzen.

Ondoren, lagun batekin aldatuko dute egindako "marraskia" eta hirugarren aldiz entzuketara egingo da. Aldi honetan ezer margotu gabe, lagunaren marraskia ikusiko dute entzuketan egiten duten bitartean.

Bukatzean, bakoitzak bere marraskia hartuko du eta lurrean eseriko da entzuketari buruz guztion artean hitz egiteko. Entzundako musikak gustatu zaigun ala ez komentatuko dugu eta ume bakoitzak bere marraskia zer den edo zer irudikatzen duen azalduko du. Jarduera honen bidez, alde batetik, umeei musika, sormena eta irudimena landuko dute eta bestetik, adierazpen plastikoaren bidez, komunikaziorako beste modu bat praktikan jarriko dute. Hau da, margolan musikal bat egingo da.

Materialari dagokionez, folioak, margoak, ordenagailua erabiliko dugu. Bestetik Poztasunaren Ereserkia entzuteko estekan sartuz soinu bilduman dagoen 7. Jarduera izeneko karpeta sartuko gara. Bertan, 7.3 jarduera jorrazteko karpeta egongo da.

Denbora eta espazioa: 15-20 minutuko jarduera izango da eta edozein gelan egin daiteke, betiere ordenagailua egon behar da.

8. JARDUERA: ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUEN INSTRUMENTUA? (18 or)

Ipuinaren azken orrialdean umeei gehien gustatzen zaien instrumentuaz hitz egiteko aukera dute. Jarduera honekin ipuina moldatzeko aukera izango dugu. Gainera aukera ona izango da gurasoek gelako jardueretan parte-hartzeko. Beraz, jarduera honetan gurasoen parte-hartzea eskatuko dugu eta horretarako hurrengo zeregina proposatuko diegu.

Umeei etxean instrumentu musikal bat egitea proposatuko diegu. Umeei haien familiarekin erabakiko dute egin nahi duten instrumentua eta egun batzuk barru, irakasleak esaten duenean, eskolara ekarriko dute. Egun horretan ipuina kontatu eta gero umeei etxean egindako instrumentu tresnari buruz hitz egingo du. Zer den, nolakoa den, nola jotzen den eta ze soinu egiten duen erakutsiko die gelako umeei.

Umeen sormena eta kreatibitatea landuko da jarduera honetan. Gainera, ume bakoitzak egindako instrumentua besteei aurkeztean protagonista sentituko da eta izaera eta nortasuna garatuko dira.

9. JARDUERA: GUZTION ARTEAN IPUNIA KONTATUKO DUGU.

Jarduera honen helburua guztion artean ipuina kontatzea izango da. Horretarako, modu erakargarri eta praktikoa batean bidez antzezlan txiki bat egiten saiatuko gara. Umeek ipuina zertan datzan jakitean eta ezagutzen dutenean paper garrantzitsua izango dute kontakizunean. Ipuinean hiru musikagileak aurkezten direnez eta ezagutuko dituztenez, hiru talde egingo ditugu eta talde bakoitza musikagile bat izango da. Irakaslea narratzailea izango da, hau da, Jokin, ipuinaren protagonista, izango da eta beti bezala hasiko da ipuina kontatzen. Umeek orain arte parte hartu duten ataletan berdina egingo dute, adibidez, musika instrumentuak jotzean edo interpretatzean.

Jarduera honetan aldatzen den atala honako hau izango da. Umeek musikagileak agertzen direnean musikagile bakoitzaren papera egingo dute. Talde bakoitzak musikagile bat interpretatuko du, dagokion txandan eta ipuinaren istorioa jarraituz. Ipuina kontatzeko metodo erakargarria izango da haientzat eta ipuinaren protagonistak sentituko dira. Gainera erakargarriagoa egiteko, irakasleak mozorroak, oihalak, musikagileek erabiltzen dituzten objektuak eraman ahal ditu gelara. Jarduera honetan guztion parte-hartzea egongo da eta dramatizazioa, imitazioa, entzumena mugimendua eta gorputz adierazpena landuko dira batik bat.

Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea izango da eta motibatzeke jarrera izango du. Mozorroak, oihalak, ipuina eta instrumentuen soinuak edo bideoak erabiliko ditugu. Haiek entzuteko soinu bilduman dauden instrumentuen bi karpitetan sartuko gara.

Espazio eta denbora, 20 minutuko jarduera izango da eta gelan egingo da.

10. JARDUEREN ANALISIA:

Proposamen didaktikoaren jarduerak garatu eta aztertu ondoren ikus daiteke Haur Hezkuntzako curriculumeko 237/2015 dekretuan konpetentzia, helburu eta eduki batzuk besteak baino gehiago lantzen direla.

Hasteko, oinarrizko zehar-konpetentzia eta oinarrizko konpetentzia espezifikoak analizatuko ditugu. Oinarrizko zehar-konpetentzia dagokienez, dekretuan aipatzen diren bostak proposatutako jardueretan lantzen dira.

Umeek egunerokotasunean komunikatzeko beharra dutenez, proposamen didaktiko honetan ezinbestekoa da komunikazioa egotea umeen arteko harremana eta errespetua sustatzeko. Adibidez, "Pianoa jotzen!" jardueran iritzi desberdinak egongo dira bakoitzak nahi duen tekla joko duelako. Bestetik, "pentagrama sortu" jardueran, ume guztion elkarlana, iritziak eta parte-hartzea funtsezkoa izango dira pentagraman notak jartzeko.

Gainera jolasa izango da proposatutako jardueren oinarria, umeek sormena eta irudimena lantzeko. Nahiz eta jarduera gidatuak izan, haien nahiak eta gustuak kontuan izango ditugu, umeek ikasteko eta pentsamendua garatzeko. Adibidez "Zein da gehien gustatu zaizuen instrumentua" jardueran, umeek haien gustuak adieraziko dituzte sortuko duten instrumentu musikalean; "Zer da Himno a la Alegría?" jardueran margolan musikal baten bidez haien emozioak eta sentimenduak adieraziko dituzte edo "Guztion artean ipuina kontatu" jardueran, mugimendu eta dramatizazioaren bidez nahiak eta gustuak adieraziko dituzte.

Bigarrenik, oinarrizko konpetentzia espezifikoei dagokienez, proposamen didaktikoaren gaia musika izanda, arterako konpetentzia eta konpetentzia motorra jarduera guztietan lantzen dela ikus dezakegu. Adibidez, "9. Sinfonia? Zelako zoramena!" edo "Vivaldiren urtaroak dantzatzen" jardueretan, umeek musika iradokitzen dietena gorputz adierazpenaren bidez irudikatuko dute eta nahi dituzten mugimenduak egingo dituzte. Hau da, umeek bere gorputza ezagutuko dute eta bakoitzak nahi dituen sentimenduak eta emozioak adieraziko ditu.

Jarraitzeko, ikus daiteke, konpetentzia sozial eta zibikoak garrantzi handia duela jarduera guztietan. Nahiz eta helburua musika lantzea denik, umeek errespetuz eta elkarlanez jolastea sustatuko dugu. "Pianoa jotzen" edo "Vivaldiren urtaroak" jardueretan, umeek haien txanda itxarotea ikasiko dute eta gainerako umeen ideiak

errespetatuko dituzte. Horretaz gain, ume guztien parte-hartzea landuko da eta gatazkak zein jokabide desegokiak izaten saihestuko da.

Aldiz, Matematikarako eta zientziarako eta teknologiarako kompetentziari dagokionez, proposamen didaktiko honetan ez zaio garrantzi handirik ematen, beraz, bi jardueretan baino ez da lantzen. “Notak pentagraman jartzen” jardueran, umeek koloretako notak lerro edo hutsune egokian kokatu behar dituzte, horretarako kolorea eta izenaren arteko erlazioak egin eta antzekotasunak bilatu beharko dituzte. Bestetik, “Vivaldiren urtaroak” jardueran, urtaro bakoitzeko musika zatia entzutean, urtaroa irudikatzen duen txartela identifikatu eta erlazionatu egin beharko dute.

Amaitzeko, zientziarako eta teknologiarako kompetentziari dagokionez, umeen teknologiarekiko kontaktua oso murriztua da. “Pianoa jotzen” jardueran, umeek irakaslearekin tableta edo ordenagailuaren piano birtuala erabili dezaketen jardura bakarra da. Horretarako, umeek momentuan erabakiko dute jo nahi dituzten teklak. Jardueretan irakasleak teknologia manipulatzeko duena da eta sormenez erabiltzen du, baina kasu honetan, irakaslearen tresna da jardura asko aurrera eramateko.

Helburu eta edukiei dagokienez, proposamen didaktiko honetan bi esperientzia eremuak jorratzen direla ikus dezakegu.

Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera eremuari dagokionez, eremu honetako hainbat helburu lantzea proposatzen dira jardura desberdinetan. Adibidez, “Vivaldiren urtaroak dantzatzeko” jardueran, ume bakoitzaren iritzi musikal iradokitzen duena adieraziko du nahi dituen mugimenduak eginez, beraz, errespetua landuko da. “Pentagrama sortu” jardueran, margotzean eta moztean taldekideen txanda errespetatuko da eta guztien parte-hartzea landuko da. Azkenik, “Pianoa jotzen” jardueran, irakasleak txandaka umeak hautatuko ditu beraren laguntzarekin nahi dituzten teklak jotzeko, beraz umeen arteko errespetua sustatuko da.

Bestetik, edukiei begira, nortasuna eraikitzea eta hartu-emanak gizarte- ingurunean lantzen diren eduki bakarrak dira. Adibidez, “Instrumentuak ezagutzen” edo “Beethoven naiz” jardueretan, umeek musikagile profesionala balira imajinatuko dute, jarrera eta keinuak imitatuz. Jolas sinbolikoaren bidez egoera errealak interpretatuko eta antzeztuko dute. “Zer da Poztasunaren ereserkia” jardueran, ume bakoitzak bere margolan musikala zer irudikatzen duen azaltzean, gainerako umeen errespetu eta arreta jarrerak landuko dira. Bestetik, “Vivaldiren urtaroak” jardueran, umeek gorputz

adierazpenaren bidez barruko emozioak eta sentimenduak adieraziko dituzte eta bertan enpatiako zein errespetuzko jarrerak landuko ditugu ere.

Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena eremuari dagokionez, eremu honetan aipatzen diren helburu eta edukiak hainbat jardueretan ikus ditzakegu.

Helburuei dagokionez, “Vivaldiren urtaroak dantzatzen” jardueran, umeei urtaro bakoitzaren musika entzutean, haien emozioak, sentimenduak eta beharrianak adieraziko dituzte. Arte-produkzioetan parte-hartzea eremu honen beste helburu batenez, “Beethoven naiz” jardueraren bidez umeei guztion artean kontzertu bat egingo dute irakaslearen laguntzarekin.

Edukiei dagokienez, hitzezko eta idatzizko komunikazioa, gorputz-hizkuntza eta arte-komunikazioko beste modu batzuk dira gehien lantzen diren edukiak. Eduki horien barruan, dramatizazioa, gorputz-adierazpena, imitazioa, mugimenduak, sormena eta interpretazioa sartzen dira. Adibidez, “9. sinfonia? Zelako zoramena!” jarduerarekin, umeei Beethovenen obraren bi zatiak entzutean mugimendu eta gorputz adierazpena landuko dute edo “Zein da gehien gustatu zaizuen instrumentua” jarduerarekin, umeei sormena garatuko dute nahi duten instrumentua sortzean. Gainera klasera eramatean, bakoitzak bere instrumentu musikala azalduko duenez hitzezko komunikazioa landuko da. “Zer da Poztasunaren ereserkia” jardueran, umeei barruko sentimendu zein emozioak besteei komunikatzea da helburua, bai mugimenduen bidez, bai margolanaren bidez. Beraz, egingo duten margolanaz baliatuz emozioak eta sentimenduak irudikatuko dituzte. Edo “Beethoven naiz” edo “Guztionean ipuina kontatzea” jardueretan, umeei musikagileak balira bezala egingo dute, beraz, dramatizazioa eta imitazioa landuko da.

Amaitzeko, aurreko analisia ikusita, aipatzekoa da, proposamen honetan hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalari dagokionez ez dela jarduera bakar batean ere ez lantzen. Matematikarako zein zientziarako kompetentzia oso gutxi lantzen den arren, jarduera pare batean aipatu dugu. Hala ere, hiru arlo garrantzitsu hauek beste jarduera zein proiektuekin lantzea posible izango da.

Laburbilduz, proposamen didaktikoaren gaia musika denez, dantzak, mugimendua, interpretazioa, zentzumenak eta gorputz adierazpenaren lanketari garrantzia emango diogu. Baina, dekretuaren bigarren eremua garrantzi handia izan arren, lehenengo eremuaren helburu zein eduki asko lantzea eta barneratzea funtsezkoa da proposamen

didaktikoa aurrera eramateko. Hau da, errespetua, laguntza, elkarlana, enpatxa eta norberaren nortasuna lantzea ezinbestekoa da. Beraz, bi eremuak lantzea eta kontuan izatea garrantzitsua da proposamen didaktiko hau praktikan jartzeko.

7- ONDORIOAK

Lan honekin egin dugun ekarpen nagusia ipuin musikala eta honekin erlazionatutako hainbat jarduera izan da. Nahiz eta gaur egun musika lantzeko materiala egon, proposamen didaktiko berria eta original bat sortu dugu, musika Haur Hezkuntzako 4-5 urteko umeekin lantzeko modu egokian.

Musika hezkuntza gizakion eta konkretuki umeen garapenean funtsezkoa dela aztertu dugunez, musika Haur Hezkuntzako etapan lantzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Umeei musika estilo desberdinak eskaini behar diegu haien nahiak eta gustuak zehazteko eta nortasuna eraikitzeke. Musika entzutean pentsamendua garatzen dute eta ume bakoitzak interpretazio desberdinak egiten ditu. Hortaz, musika hezkuntza lantzeko material egokiak eta anitzak erabili behar dira. Hau da, landu nahi diren edukien arabera material zein baliabide desberdinak hautatuko ditugu.

Horregatik, gaur egun dagoen materialarekin aldentuz, proposamen didaktiko berri bat sortzea erabaki genuen. Hori dela eta, lan honetan ipuin musikala bat sortu dugu non umeek musikagile famatu batzuk eta jotzen zituzten instrumentuak ezagutzeaz gain, gainerako instrumentu batzuk landuko dituzte. Bestetik, ipuinarekin erlazionatutako hainbat jarduera diseinatu eta garatu ditugu kontzeptu musikalak lantzen dituztenak. Bestalde, proposamen didaktiko honetan musikaren oinarrizko bost atal garrantzitsuak jorratuko ditugu. Hauek izanda, hizkuntza musikala, entzumena, mugimendua, ahotsa eta kantua eta musika tresnak, ipuinean zein proposatutako jardueretan landuko ditugu.

Gainera, gure proposamen didaktikoan oinarrizko bost atal horiek lantzean ikusi dezakegu curriculumeko helburu zein eduki asko lantzen direla. Ipuin musikalean eta jardueretan ikus daiteke adierazpena, dramatizazioa, musika... lantzen duten edukiak jorratzen direla, curriculumeko bigarren eremuari garrantzia emanez. Hala ere, proposamen didaktikoaren gaia musika lantzea izan arren, bi eremuak sakon landuko dira eta biek garrantzi bera izango dute. Beraz, kontzeptu musikalak lantzeaz gain, umeen arteko errespetua, elkarlana, parte-hartzea, nortasunaren eraikuntza jorratuko dira.

Bestetik, curriculumean, bigarren eremuan “gorputz hizkuntza” deitutako multzo hau, hainbat jardueretan lantzen dela ikusi dezakegu. Emozioak musikaren bidez lantzeko

baliabide egoki eta onuragarria izan daitekeela uste dugu. Haur Hezkuntzako etapan, umeeek barne sentimenduak eta emozioak adierazteko zailtasunak dituztenez, musika tresna egokia dela esan dezakegu. Hau da, imitazioa eta dramatizazioaren bidez sentimenduak, emozioak eta nahiak adieraziko dituzte non umeeek ikasi eta konturatuko dira musika komunikazio beste bide bat dela. Hots, hitzezko komunikazioaz gain, gorputz hizkuntza dagoela. Gainera, ume bakoitzak bere nortasuna eta irudi orekatua garatuko du eta euren burua gehiago ezagutzeko baliogarria izango da.

Bukatzeko, aipatu behar dugu musika arloaren inguruan formakuntza izatea beharrezkoa dela, eta musika lantzeko gogoia izatea eta material egokiak zein baliabide anitzak erabiltzea funtsezkoa da, Haur Hezkuntzan umeen garapen globala lortzeko. Ikusi dugun bezala, nahiz eta material gutxi egon ikertu behar dugu eta aukerak bilatu eta sortu behar ditugu umeei hezkuntza musikala eskaintzeko. Hori dela eta, hona hemen Haur Hezkuntzan lantzeko baliabide didaktiko original eta berritzaile bat.

8- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honetan, benetako hobekuntza proposamenak jakiteko praktikara eramatea komenigarria izango litzateke. Praktikara eramatean, ikuspuntu desberdina izango dugu eta hobekuntza zein ondorio egokiagoak izango ditugu. Helburuak, edukiak, materialak eta jardueri dagokionez, aproposak diren eta umeen interesak, motibazioa eta parte hartzeak egokiak diren ikusiko dugu. Horretaz gain, sortutako proposamen didaktikoa Haur Hezkuntzarako egokia den ala ez aztertuko dugu.

Ipuin musikala eta jarduerak burutzeko ordenagailua edo euskarri digital bat erabiliko dugula aipatzen dugu. Hauek ez izanez gero, beste aukera bat izan daiteke soinu bilduma cd batean grabatzea, instrumentuen soinuak entzuteko. Bestetik proposamenean lantzen ditugun instrumentu musikalak eskolan eskura ez baditugu, beste aukera bat bilatu ahal dugu horiek ikusteko. Adibidez, film baten bidez edo agian klaseko umeen gurasoren bat instrumenturen bat jotzekotan, klasera etorri ahal da erakusteko.

Ipuin musikalaren formatuari dagokionez, IKT-ak geletan oso presente daudenez, hobekuntza proposamen egokia ipuina digitalizatua egitea izan daitekeela uste dugu. Beraz, ipuin musikala paper bertsioan erabili arren, hobekuntza proposamen moduan ipuina euskarri digitalean sortu dugu instrumentu musikalen soinuak orrialde bakoitzean txertatuz. Sortutako soinu bilduman, ipuin musikalaren karpeta aurkituko dugu power

point formatuan. Hala ere, nahiz eta euskarri digitalean sortu gure hasierako euskarria paperean izango da.

Bestetik, musikaren oinarrizko bost atalak lantzen dituen proposamena sortzeaz gain, hainbat jarduera gehiago diseinatu ditugu ipuinarekin lantzeko proposatzen ditugunak. Hona hemen gure proposamen didaktikora gehitu ahal ditugun jarduera batzuk:

- INAUTERIETAN MUSIKAGILEAK IZANGO GARA

Inauterietan aukeratutako gaia musikagileaz mozorrotzea izaten bada, kasu honetan, ipuina tresna egokia eta erabilgarria izan daiteke gaia ezagutzen hasteko. Hau da, ipuina gaiari buruzko aurrezagutzak izateko balioko zaigu. Ipuinarekin umeei musikagile bat zer den eta zer egiten duen ikusiko dute, beraz, haiek mozorrotuko diren pertsoniaz ezagutza izateko erabiliko dugu ipuina.

Gainera, ipuinean hiru musikagile agertzen direnez, aukera dugu maila bereko gela bakoitza musikagile bat izatea. Hau da gela bat Vivaldi, bestea Mozart eta beste Beethoven.

✓ Irakaslearen papera: Inauteriak prestatzen hastean, irakasleak aukeratutako gaia esango die umeei eta musika eta musikagileei buruzko zer dakiten galdetuko die. Haien ezagutzak ikusi eta gero, ipuinaren bidez gaiaren inguruan gehiago ikusiko dutela erakutsiko die eta ipuina aurkeztuko die.

- COLLAGE BAT EGINGO DUGU.

Jarduera honen bidez, Antonio Vivaldiren udazkena eta udaberria lantzeko collage bat egingo dugu. Collage-a egiteko umeei hostoak eta loreak gelara ekarriko dituzte eta guztion artean Collage-a egingo dugu. Horretako, kontuan izan behar dugu, hostoak hartzeko komenigarria izango dela udazkenean egitea, eta bestetik, lore politak hartzeko udaberrian egitea.

Bi jarduera honen bidez, urtaro bakoitzean zer gertatzen den ikusiko dute umeei eta aldi berean, Vivaldiren obra nagusietariko bat dela ikasiko dute. Bestetik, ipuina nahiz eta programazio baten barruan sartzeari eta urtaro hauekin bat ez etortzea, irakasleak hostoen edo loreen argazkiak plastifikatuak eraman ditzake gelara umeei Collage-a egiteko. Jarduera hau egiteko paper handi bat erabiliko dugu eta bertan loreak edo

hostoak itsatsiko ditugu. Gainera, umeei urtaroarekin zerikusia duen gauzaren bat bururatzen bazaio Collagean jarriko dugu ere.

- SOL KLABEAREN ATZETIK.

Jarduera honekin umeei Sol klabea marraztuko dute. Horretarako, irakasleak fitxa batean sol klabea marraztuta emango die. Fitxan, esan dugun bezala, sol klabea marraztuta izango dute baina ez osoa, hau da, lerro ez jarraituez egingo da, beraz, umeei arkatx batekin lerroa jarraituko dute eta sol klabea egingo dute. Sol klabea egin eta gero, barrutik margotu dezakete. Jarduera honen helburua Sol klabearen irudia hobeto ezagutzeko da eta umeei hizkuntza musikalaren ezagutza izatea.

✓ Irakaslearen papera: irakasleak fitxa prestatuko du eta gelara eramango du. Umeen ezagutzak ikusteko fitxa erakutsiko die eta zer den galdetuko die. Umeen erantzunak entzun eta gero zer egin behar duten azalduko die.

- MUNDUKO INSTRUMENTUAK EZAGUTZEN

Ipuinean ikusitako instrumentuez gain, munduko hainbat herrialdeen instrumentu batzuk ezagutuko ditugu, hala nola, ogizko txirula (Errumania), Eskoziako gaita, bouzouki (Grezia), Arpa (Irlanda) eta mandolina Portugesa.

Irakasleak gelara inprimatuta eramango ditu instrumentu horien argazkiak. Instrumentu bakoitza ikusiko dute eta nola jotzen den bideo baten bidez ikusiko dute. Hori egin eta gero, bakoitzak nongoa den ikusiko dugu. Horretarako mapeko aplikazioan sartuko gara edo atlasarekin bilatuko dugu instrumentu bakoitzaren herrialdea. Gero aurreko ekintzan erabilitako mapa erraldoian itsatsiko ditugu instrumentu bakoitza.

✓ Irakaslearen papera: irakaslea laguntzailea eta gidatzailea izango da. Umeen parte-hartzeaz arduratuko da eta haien txanda errespetatuko du, bai umeei instrumentuen argazkiak mapan itsastean, bai haien ideiak erakustean.

✓ Materiala: Bideoa, instrumentuen argazkiak, ordenagailua...

- INSTRUMENTU ERREALAK-

Jarduera hau eskolak duen musika gela eta instrumentuen arabera egin dezakegu. Beraz, horren arabera honako jarduerak proposatzen dugu.

Eskolako musika gelara joango gara bertan dauden instrumentuak ikustera eta posible bada, batzuk joko ditugu. Umeentzat instrumentu errealak ikustea eta batzuk, posible bada, manipulatzeari oso erakargarria izango da. Beraz, musika gelako instrumentu errazak utziko diegu.

Lehenik, gelatik ibiliko gara instrumentuak ikusteko eta ezagunak izaten badira haien izenak esango ditugu. Gelatik bueltatxo bat eman eta gero, lurrean eseriko gara eta irakasleak erabakiko du ze instrumentu erabiliko duten. Gelan dauden instrumentuen arabera aukeratuko dituzte baina erraztenak izango dira, adibidez, txirulak, danborra, xilofonoa, marakak... Gelan egongo diren instrumentu asko ipuinean ikusi ez ditugunez, irakasleak galdetuko die ezagutzen dituzten ala ez eta zein den bakoitzaren izena. Azkenik, irakasleak emandako instrumentuak joko dituzte.

✓ Irakaslearen papera: irakaslea gidatzailea izango da eta bera izango da ze instrumentu erabiliko duten erabakiko duena.

9- BIBLIOGRAFIA:

- Akoschky, J., Alsina, P., Díaz, M., Giraldez, A. (2009). *La música en la escuela infantil (0-6)*. Editorial GRAÓ
- Arguedas, C. (2006). Cuentos musicales para los más pequeños. *Actualidades Investigativas en Educación, Volumen 6*.
- Barbarroja, M.J. (2009). La música en Educación Infantil. *Revista digital. Innovación y experiencias educativas*.
Berreskuratuta: https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/JANET_BARBARROJA_1.pdf
- Bernal, J. (2005). APUNTES PARA UNA NUEVA EDUCACIÓN MUSICAL EN LA ESCUELA. Departamento de Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal Facultad de Ciencias de la Educación (Universidad de Granada). *Publicaciones, 35*
- Euskal Autonomi Erkidegoa. 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a*.
- Fernandez, C. (2010). El cuento como recurso didactico. *Revista digital innovación y experiencias educativas*.
Berreskuratuta: https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_26/CRISTINA_GEMA_FERNANDEZ_SERON_01.pdf
- Hormigos, J. eta Cabello, A. (2004). La construcción de la identidad juvenil a través de la música. *Revista española de sociología, (4)*, 259- 270. Berreskuratuta : <http://www.fes-sociologia.com/files/res/4/11.pdf>
- Lopez de calle, Mª. A. (2009). La formación de los maestros de Educación Infantil para la comprensión de la Música y su uso didáctico en Galicia. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 12 (1)*, 107-120.
Berreskuratuta: http://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1240872964.pdf
- Montoya, V. (2002). El origen de los cuentos. *Sincronía, Nº 2*. Berreskuratuta: <http://sincronia.cucsh.udg.mx/montoya02.htm>

- Palacios, F. (2012). Cuento y música: Un idilio permanente. *Boletín Iberoamericano de Teatro para la Infancia y la Juventud*, núm. 7 (octubre 2006), pp. 29-55, Madrid.

Berreskuratuta: <http://www.cervantesvirtual.com/obra/cuento-y-musica-un-idilio-permanente/>

- Pascual, P (2006). Didáctica de la música para educación infantil. *Didáctica de la música*. PEARSON EDUCACIÓN, S. A., Madrid

- Rodriguez, Gloria A, (2016). El cuento musical y las competencias profesionales en el practicum universitario. *Biblioteca Digital Repositorio Académico. Opción*, vol. 32, (8) pp. 619-640.

Berreskuratuta: <https://www.redalyc.org/pdf/310/31048481036.pdf>

- Ruiz Ortega, A. (2010). El cuento como recurso educativo en educación infantil. *Revista Digital Innovación y experiencias educativas*, 36 (13), p.p 1-10.

Berreskuratuta:

http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_36/ANA%20RUIZ%20ORTEGA_1.pdf

- Sarget, M^a.A. (2003). La música en la educación infantil: estrategias-cognitivo musicales.

- Temas para la educación, (2009). El cuento: su valor educativo en el aula de infantil. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*.

<https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd5950.pdf>

- Vicente-Yagüe, M^a I. eta Guerrero, (2015). El cuento musical. análisis de sus componentes textuales, musicales e ilustrados para el desarrollo de las competencias básicas en educación primaria. *Profesorado. Revista de curriculum y formación del profesorado* VOL. 19, N^o 3 (Sept.-Dic. 2015). Berreskuratuta:

<https://www.redalyc.org/pdf/567/56743410026.pdf>

- VVAA, Bautista, M.(comp) (2019). *Soinu Bilduma*. Berreskuratuta:

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkqgDxBKqQEgjMXOkJ_UvpBG36

10. ERANSKINAK:

1.eranskina: 10.1: Ipuin Musikala

Esteka partekatua: https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkqgDxBKqQEgjMXOkJ_UvpBG36

- Esteka partekatu honetan 4 karpeta sortu ditugu musika eta bideoak erabili behar ditugun jarduerentzako. Bertan instrumentuen soinuak (tronpeta, gitarra, xilofonoa, pianoa, danborra, triangelua eta klarinetea) eta instrumentu bakoitza nola jotzen den jakiteko bideoak egongo dira.

JOKINEN AMETSA



Egilea: Marta Bautista Martínez de Icaya



JOKINEN AMETSA por MARTA BAUTISTA MARTÍNEZ DE ICAYA sedistribuyebajo una LicenciaCreativeCommonsAtribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional.


Ni Jokin naiz eta hau nire logela da. Asko gustatzen zait nire jostailuekin jolastea.





Hauek nire jostailuak dira. Gustatzen zaizkizue?

Baina... gehien gustatzen zaidana nire aitatxo tronpeta jotzen ikustea eta entzutea da.



Ikusi nahi duzue? Goazen!

Hau nire aita da, Aitor du izena eta oso ondo jotzen du tronpeta. Batzuetan, haren kontzertuetara joaten gara ama eta biok.





Nik, nagusia naizenean, tronpeta joko dut, edo agian ...

Musikagile onena izan nahi dut, Vivaldi, Mozart edo Beethoven bezala...


Ezagutzen dituzue?

Hau Antonio Vivaldi da. 1678ko martxoaren 4an jaio zen Italiako herrialde batean, Venezian.



Biolina jotzea gustatzen zitzaion, bere aita bezala eta oso musikagile famatua izan zen.

Baina nola jotzen da biolina? Zer behar dugu? Badakizue?





Dakigunez bere obra famatuena “Lau urtarok” deitzen da.


Hau Wolfgang Amadeus Mozart da. 1756ko urtarrilaren 27an jaio zen gaur egungo Austrian, Salzburgo hirian.



Txikitatik biolina jotzen zuen eta haren arreba Nannerlek batzuetan pianoa jotzen zuen berarekin.



Badakizue nola jotzen den pianoa?



Europako hainbat herrialdetan jotzen zuten biek eta oso famatuak izan ziren.



*Hau Ludwig van Beethoven da eta 1770eko abenduaren 16an jaio zen
Bonnen, gaur egungo Alemanian.*



Beethoven oso musikagile ona izan zen eta pianoarekin eta biolinarekin kontzertuak egiten zituen. Hala ere, nagusia zenean gorra geratu zen.




Badakizue nola jotzen diren biolina eta pianoa,

Pentagramak irakurtzen jenio hutsa zen eta oso famatua izan zen idazten zuen musikagatik.




Lagunduko didazue notak jartzen?



Pentagramak irakurtzen jenio hutsa zen eta oso famatua izan zen idazten zuen musikagatik.

Lagunduko didazue notak jartzen?



Dakigunez, bere obra famatuena 9. Sinfonia da eta gaur egun oso ezaguna da. Sinfonia honen amaieran “Poztasunaren Ereserkia” agertzen da.



Momentuz nire aitak irakasten dit tronpeta jotzen baina hurrengo urtean auskalo zer joko dudan.



Baina... nire ametsa klarinetea jotzea da!

Eta zuei zein instrumentu gustatzen zaizue?




10.2: Jardueren materiala

- 2. Eranskina: 2. Jarduera: Instrumentuak ezagutzen! (5.orrialdea)

Soinu bilduman instrumentuen soinuak entzuteko edo bideoak ikusteko bi karpeta daude.

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkgqDxBKgQEgjMXOkJ_UvpBG36



- 3. Eranskina: 3. Jarduera: Non jaio ziren gure musikagileak?(6, 9, 13. orrialdeak)



- 4. Eranskina: 4. Jarduera, 4.1-Vivaldiren urtaroak dantzatzen!

- Soinu bilduman 4.jardueran deitutako karpeta urtaro bakoitzean erabiliko den mugimenduen zatiak daude.Vivaldi uda, Vivaldi negua, Vivaldi udazkena eta Vivaldi udaberria.

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkgqDxBKgQEgjMXOkJ_UvpBG36

4. Eranskina: 4. 2 Jarduera: Vivaldiren urtarok.(8. orrialdea). Txartelak. Mugimenduen zatiak entzuteko esteka sakatu 4. Jardueran.

UDABE




UDAZKE





UD




NEG



- 5.Eranskina: 5.Jarduera: Pianoa jotzen! (12. Orrialdea)



6. Eranskina: 6.1 jarduera: Pentagrama sortu (15.orrialdea).



7. Eranskina: 7. Jarduera (16.orrialdea):

7.1 jarduera: 9. Sinfonia? Zelako zoramenal:

7.3 jarduera: Zer da poztasunaren ereserkia?.

Estekan 7.jarduera deitzen den karpetan bat egongo da, bertan lehenengo jardueran eta hirugarren jardueran erabiliko ditugun soinua entzuteko.

https://drive.google.com/drive/folders/1XETjZFWkgqDxBKgQEgjMXOkJ_UvpBG36

- 10.3 TAULAK:

1. JARDUERA: IPUINA		
ONARRIZKO KONPETENTZIAK	HELBURUAK	EDUKIAK
<p>ONARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. - Norberaizaten ikasteko konpetentzia a. - Elkarbizitzarako konpetentzia <p>ONARRIZKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia - Konpetentzia sozial eta zibikoa. - Konpetentzia motorra. - Artera konpetentzia. 	<p>1- NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN EZAGUERAREN EREMUA</p> <p>2) Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.</p> <p>5) Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.</p> <p>11) Arian-arian, gizartean jokatzeko oinarriko jarraibideak barneratzea eta norberaren portaera jarraibide horietara moldatzea, gero eta modu</p>	<p>1- NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN EZAGUERAREN EREMUA</p> <p>Bigarren zikloko edukiak.</p> <p>1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta zer sentsazio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzea. • Jolasaren bidez (jolas motor, zentzumenezko, sinboliko eta arautuen bidez) arakatzeko ingurunea. Disfrutatze eta harremanak izateko bitarteko gisa balio estea jolasa. • Jolas sinbolikoaren bidez, egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea.

	<p>egoki eta orekatuagoan.</p> <p>2.- NORTASUNAREN ARAIKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ADIERAZPENAREN ERREMUA</p> <p>1) Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.</p> <p>2) Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizi-penak adierazi eta azaltzeko.</p> <p>4) Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.</p> <p>9) Askotariko testuingurutan erabiltzea matematika-adierazpenak, objektuen ezaugarriak deskribatzeko eta inguruneko egoerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean eta jolasetan parte hartzea eta saiatzea. <p>2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. • Afektu eta enpatia koharremansortzeko jarrera positibo izatea eta talde-lanetan laguntzea. <p>2.-NORTASUNAREN ARAIKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ETA ADIERAZPENAREN ERREMUA</p> <p>1. MULTZOA. Hitzezko eta idatzizko komunikazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak,
--	--	--

	<p>interpretatu eta ulertzeko.</p> <p>10) Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.</p>	<p>asmakizunak, etab.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuidatzen ondo andauden irudiak eskuezera biltzea eta interpretatzea, eta irudien eta testuaren arteko loturak egitea. • Sormena adierazte ahizkuntzaren ahozko erabilera egiten duten jolasetan, ondopasatu eta ikasteko. • Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea. <p>2. MULTZOA. Gorputz-hizkuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egindako komunikatzeko asmoarekin, pertsonen, espazioen, denboraren eta objektuenez augarrien arabera. • Dramatizazio eta imitazio jolasetan, dantzetan eta gorputz-adierazpen adarabilten bestelako jolas-jardueretan parte hartzea.
--	--	--

2. JARDUERA (5.ORRIALDEA): INSTRUMENTUAK EZAGUTZEN!

OINARRIZKO KONPETENTZIAK	HELBURUAK	EDUKIAK : BIGARREN ZIKLOA.
